

Intxurrek urte berezia prestatu du mende erdia ospatzeko

Alegiako elkarteak 50 urteak biltzen dituen dokumentala egin du, eta hilaren 18an aurkeztuko du; askotariko ekitaldi ugari aurreikusi dituzte urtaroka banatuta //4

Neurriak hartuko ditu Irurako Udalak gaikako bilketa hobetzeko //3

Emaitza nabarmenak izan dituzte eskualdeko lasterkariek //7



JOSU ARTUTXA

TOLOSA

BIDAIA MODUKO BAT

Sükrü Karakus artista tolosarrak 'Mistika eta tekno-popa' erakusketa jarri du Aranburu jauregian, azken bi urteetan sortutako ia 100 margolanekin; bisitariek erakusketa bisitatu eta euren buruari galderak egitea bultzatu nahi du egileak //5



ZATOZ SAMANIEGO BISITATZERA
Eskaneatu QR kodea eta hitzartu zurea



Informazioa
samaniego-tolosa.hezkuntza.net
943 651 063 / 688 867 570

AURREMATRIKULA IREKIA URTARRILAREN 17TIK 28RA

TOLOSAKO EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA

ESKOLA EUSKALDUNA, INTEGRATZAILEA ETA BIZIA

ZATOZ ORIXE EZAGUTZERA
Eskaneatu QR kodea eta ezagutu gaitzazu!



Informazioa
orixebhi.hezkuntza.net
943 899 289 / 942 899 288

Alurr dantza taldearen emanaldia, hilaren 28an

IBARRA // Alurr dantza taldeak urtero bezala emanaldia eskainiko du ikasleen lanak erakusteko. Urtarrilaren 28an izango da 19:30etik aurrera, Belabieta kiroldegian. Emanaldiari jarri dioten izena berezia dela esan dute: *Ezina ekinez egina*. «Azken urte pare haur bereziki gogorra izan da kultura arloan lanean gabiltzanontzat, eta ez da lehenengo aldia izango emanaldiaren atarian bertan behera uztea behartu gaituzten erabakiak jaso ditugula».

Txindokira igotzeko txangoa antolatu du Oargi elkarteak

TOLOSA // Oargi mendi elkarteak kideek Txindokira irteera egingo dute urtarrilaren 16an. 08:00etan aterako dira Tolosatik eta Larraitzetik ohiko bidetik abiatuko dira. Ondoren hegoaldeko paretan dagoen kanal batetik igoko dira eta ertzetik oinez egingo dute tontorrerako bidea. Ibilbidea 5 ordukoa izango da eta oargimendi@gmail.com helbidean eman behar da izena.

COVID ziurtagiriaren kontrako elkarretaratzea

TOLOSA // Biziplaza taldeak elkarretaratzea deitu du larunbaterako, hilak 15, *Gune askeak denontzat; Covid paserik ez lelopean*. «Bazterketa bultzatu eta oinarritzko eskubideak urratzen dituen apartheid pasea ezarri da baita ere Tolosaldean; kultur jardueretara, kirol instalazioetara eta ostalaritzarako sarrerak oztopatzen dituen», salatu dute. Hori dela eta, «zerbitzu publikoak eta aisialdirako eremuak denontzat izan daitezkeen» bilduko dira. Tolosako Trianguloan jarri dute hitzordua, 12:00etan.

IRAGARKI LABURRAK

Salgai

Txerriak. Apotea, zerramak eta sei hilabete inguruko terrakumeak salgai. Interesatuak deitu 607 668 603 (Joxe Kruz) telefono zenbakira.

Lan bila

Garbiketa eta zaintza. Arratsaldeetarako lan bila nabil. Etxeak eta portalak garbitzeko edo adinekoak zaintzeko prest nago. Interesatuak deitu eguerdian edo gauean: 696 409 773.

Bakarrik bizi diren adinekoei babes emateko programa

Amasa-Villabonako Udalak adinekoentzako arreta indartuko du, Landalab proiektua aktibatuz; esperientzia 2022ko irailera arte pilotatuko dute Amasan

Erredakzioa Amasa-Villabona

Amasa-Villabonako Udalak Landalab proiektua abiaraziko du Amasan herritarren lankidetzaz sustatu eta Gizarte Zerbitzuen lana osatu ahal izateko, «zaintza komunitarioa bultzatuz eta zaintzaren kultura sortuz».

Horretarako Gizarte Zerbitzuetatik gonbidapen gutunak bidaliko ditu datozen asteetan pertsona adinduei proiektuan parte hartzerantz animatuz. Gutun bidez adinduek zein laguntza-sare duten eta zein babes sentazio duten jakin ahal izango dute. Horiek horrela, hauskortasun egoera larriagoan dauden pertsonen kasuan, beraiekin baloratuko dute Landalaben parte hartu dezaketen edo beste baliabide batzuen beharra duten.

Proiektuan parte hartu nahi dutenek Gizarte Zerbitzuen informazio sistema integral bat eta komunitatearen lankidetzaz izango dute, Auzozainak figuraren bidez. Pertsona horiek, bizi-lagunak, merkatariak, herriko apaiza, erizainak eta abar izan daitezke. «Horien betebeharrak izango da proiektuan parte hartzen duten adinekoen ahultasun seinaleei adi egotea, eta mugiko-



Amasa-Villabonako Udalak Amasako adinduek animatu dituen Landalab proiektuan parte hartzerantz. ATARIA

rreko aplikazio baten bitartez hauskortasun egoera horren berri emango diete Gizarte Zerbitzuei, modu erraz batean», esan dute udaletik.

Pertsona adindua izango da Auzozaina aukeratuko duena bere eguneroko jardueretan arriskuan jar dezakeen edozein aldaketa, egoera edo seinaleriadi egoteko, eta Auzozainek gailu mugikorretarako aplikazio baten bitartez Gizarte Zerbitzuei jakinaraziko diete.

Proiektuan parte hartu nahi

duten pertsonak dinamizatzailerekin hitz egin dezakete 688 81 69 43 telefono zenbakira deituz edo Gizarte Zerbitzuetara bideratuz (943 69 21 00).

AMASAKO AZTERKETA

Udalak Amasaren azterketa egin du eta 365 biztanleetatik 95 pertsonak 65 urte baino gehiago dituztela baieztatu ahal izan du (%26,8).

Bizikidetzaren unitateei dagokienez, Amasan adinekoren bat bizi den 59 etxebizitza daude eta

horietatik 13tan bizi dira bakarrik. Auzoko erdigunean, 13 etxetan bakarrik edo beste pertsona adindu batekin bizi dira eta sakabanatutako eremuan al-diz, 18 etxebizitza daude egoera berean.

Azterketa honekin beraz, prekaritate ekonomikoarengatik, mendekotasunarengatik edo oinarritzko baliabideen urruntasunarengatik sortutako adierazleengatik hauskortasun egoera larriaren dauden pertsonen kopurua neurtu ahal izan dute.



BANATU DITUZTE SARIAK

Ibarrako Merkatarien Elkarteak banatu ditu jada Eguberrietako zozketako sariak. Sari nagusia Istanbulera bidaia izan da, baina patinete elektriko bat eta Eguberrietako 10 saski zozkatu dituzte ere. Hilaren 4an egin zuten zozketa. ATARIA



SEINALEAK JARRI DITUZTE

Zizurkil Uemako kide dela adierazten duten seinaleak Zubiaurretxoko bidegurutzean eta San Millan elizaren atzealdean jarri dituzte. Apirilaren 26ko osoko udal batzarrean erabaki zuen udalak Uemako kide izatea eta maiatzaren 29ko batzarrean mankomunitateko kide gisa onartu zuten udalerria.

Gaikako bilketa hobetzeko neurri berriak hartuko dituzte

Iruran hondakin organikoen eta errefusaren edukiontziak txartel bidez irekiko dira otsailaren 7tik aurrera; gaiari buruz aritzeko batzarra egingo dute bihar

Erredakzioa Irura

Hondakinen gaikako bilketa handitu eta egiten den sailkapenari jarraipen egokiagoa emateko asmoz, Irurako Udalak aldaketak egingo ditu hondakinen bilketa sisteman otsailaren 7tik aurrera. Hondakin organikoen eta errefusaren edukiontziak txartel bidezko irekitze sistema izango dute. Gaur egungo edukiontziei txip bidezko gailuak jarriko zaizkie egunotan eta herriarrek hauek irekitzeko txartel bana jasoko dute. Edukiontzi marroia egunero erabili ahal izango da, eta errefusarena, berriaz, astelehen eta ostiraletan.

Herri Eskolan jarriko duten postura hurbildu beharko dute herriarrek txartel bila, urtarrilaren 31tik otsailaren 4ra, 09:00etatik 14:00etara eta 16:30etik 20:30era. Tolosaldeko Mankomunitateko hezitzaileak egongo dira bertan eta izena jaso eta txartela aktibatuko diete herriarrei.

Irurako Udalak gogorarazi du hondakin organikoak etxean edo auzoan konpostatzeko aukera ere badutela herriarrek. Konposta egin nahi duten familiek ezingo dute edukiontzi marroia erabili, baina hondakinen tasa murriztua aplikatuko zaie eta beren hondakin organikoak herrian kudeatzeagatik merkeago ordainduko dute hondakinen zerga, hain zuzen, hiruhileko bakoitzeko 25,5 euro.



Txartel irakurgailuak urtarrilaren 24tik aurrera instalatuko dituzte organikoaren eta errefusaren edukiontzietan. ATARIA

Herriko hondakinen bilketari buruzko informazioa emateko eta hurrengo asteetan neurri hauen ezarpenerako emango diren urratsen berri emateko bi batzar informatibo antolatu ditu Irurako Udalak. Lehena, bihar izango da, euskaraz, 18:00etatik aurrera Herri Eskolan. Bigarrena, urtarrilaren 18an egingo dute gaztelaniaz, ordutegi berean. Bertaratu ezin dutenek, informazio saioa meet plataforman bidez jarraitu ahal izango dute, udalaren web gunean topatuko duten estekan sartuta.

Irurako Udalak hondakinak

behar bezala kudeatzen duten herriarrek zoriandu ditu. «Hondakinen sorrera murriztuz eta hauek behar bezala kudeatuz, guztion artean udaleko hondakinen gastua gutxitu, ingurumena zaindu eta klima aldaketari aurre egiten lagunduko dugu», esan dute udal ordezkariak.

ESKU-ORRIA ETXEZ ETXE

Informazio guzti honen berri emateko esku-orria banatu du udalak etxez etxe. Bertan dio hondakinak bildu eta tratatzeko zerbitzua garestitu egin dela azken urteetan. «Hondakinari da-

gozkion zergen bidez biltzen den diruak ez du kostua guztiz estaltzen. Ondorioz, defizita sortzen du, urtetik urtera handitu dena». Emandako datuen arabera, 2020an 116.141 euroko defizita izan du udalak. «Eraikin publikoek, ibilgailuek, kale argiteriak eta makinariak duten bi urteko kontsumo kostuarekin alderatu daiteke kopuru hori edota gizar-te zerbitzuarekin», esan dute. Lurretik poltsak jasotzeko zerbitzuaren urteroko kostua 10.000 eurokoa dela nabarmendu dute udal ordezkariak.

Argindarraren faktura ulertzeko tailerra antolatu dute gaurko

AMASA-VILLABONA // Amasa-Villabonako Udaleko Ingurumen sailak argindarraren faktura ulertzeko tailerra antolatu du Goiener Kooperatibarekin elkarlanean. Tailerra gaur izango da, 15:00etan hasita Subijana etxeko beheko solairuko aretoan. Parte hartzeko interesa dutenek ez dute aurretik izena eman behar, nahikoa izango da Villabonako Subijana etxera gerturatzearekin.

Serigrafia tailerra egingo dute Zizurkilen urtarrilaren 22an

ZIZURKIL // Herribizigune elkar-teak serigrafia tailerra antolatu du urtarrilaren 22an, 10:30ean hasita, Iriarte kultur etxean. Dokaio izango da izen ematea, baina elkarteko kideek eskertuko lukete gerturatzeko asmoa dutenek aurrez jakinaraziko balute, urtarrilaren 17a baino lehen, herribizigune@gmail.com helbidera idatzita, astelehenetako hitzordura gerturatuta edota elkarteko kideei jakinarazita.

Joseba Agirrezabalagaren erakusketa Ur Maran

ALKIZA // Ur Mara museoa ikusgai dago Joseba Agirrezabalaga artistaren *Bltk* izeneko erakusketa. Aurtan, Sormenaren Kabia bekarekin egonaldia egin du Alkizan artista azpeitiarrak eta egitasmoaren barruan egindako lanak dira ikusgai daudenak. Otsailaren 10era arte egongo da jarrita erakusketa Azaldegik bailaran kokatuta dagoen Ur Mara museoko negutegian.

Hilberriak eta urteurrenak

ataria jarrita
Urola Kostako
eta Goierriko
Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 110 € • Harpidedunentzat 55 €
HANDIA (124mm X 63,5mm): 160 € • Harpidedunentzat 80 €
ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 60 € • Harpidedunentzat 30€
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 11:30ak arte hartzen ditugu

Intxurre elkarteak 50 urte betetzen ditu aurten, eta urtemuga ospatzeko, ekitaldi sorta antolatu dute; hilaren 18an elkartearen historia jasotzen duen dokumentala aurkeztuko dute.

Intxurrek mende erdia bete du

Asier Imaz

Alegiako Intxurre kultur eta kirol elkarteak 50 urte betetzen ditu aurten. Elkarteko kideek urte berezia izatea nahi dute, bazkideentzat, herriarrentzat eta inguruko guztientzat, eta ekitaldiz betetako urtea izango dela iragarri dute.

Felix Irazustabarrena elkarteko kideak gogoratu duenez, herriko gazte talde bat hasi zen elkartzen mendizaletasuna bultzatzeko. «Elkarteak egoitzarik ez zuenean bilerak parroki zentroan egiten zituzten, eta lehenengo lehendakaria emakume bat izan zen, Loli Balerdi, emakumeen parte hartzea hain hedatua ez zen garaian». Gerora, ixterazihoan Kalebeherako taberna batean kokatu zen elkarte, eta urte batzuk geroago, gaur egun dagoen lekura aldatu zen, egoitza auzolanean egokituz.

Elkarte lekuz aldatzen joan zen moduan, izaera aldatuz ere joan zen. «Kultur eta kirol elkarte bihurtu zen, eta 1977. urtetik aurrera euskaraz funtzionatzeko erabakia hartu zuen elkarteak.

Elkartearen historiari lotutako pasarte horiek guztiak dokumental batean bildu dituzte, eta hori hurrengo asteartean, hilaren 18an izango da ikusgai, herriko zineman. «Azken hilabeteetan landu dugun lana izan da, eta elkartean protagonista izandako hainbatek elkartearen beraren ibilbidea gogoratu dute».

Ekitaldi hori baliatuko dute urte osorako elkarteak egin asmo dituenen berri emateko, eta bil-

tzen diren bazkide guztiek elkarrekin argazkia egingo dute ekitaldi horretan.

EKITALDIK UR TAROKA

Urteurreneko lehen ekitaldia datorren astekoa izango bada ere, urtea era berezian hasi nahi izan dute elkarteko kideek. Hala, urteko lehen egunean 50. urteurreneko irudia duen kartela zintzilikatu zuten, eta ondoren, bertaratutako bazkideek urte bereziarengatik topa egin zuten.

Hurrengo ekitaldia urtarrilaren 23an egingo dute. Hain justu, mendi irteera antolatu dute Intxurre mendira, 08:00etan abiatuta. Languerrera bisita egin eta ondoren elkartean hamaiketako egingo dute.

Hortik aurrera izango diren ekitaldiei dagokienez, Irazustabarrenak aurreratu duenez, urtaroka egingo dituzte. «Maiatza ekaina inguruan Languerre eguna antolatzeko asmoa dugu; maiatzaren 29an izango da ziuurrenik, eta horren bueltan kultur batzordearekin batera ingurugiroarekin lotutako hainbat jarduerak antolatu nahi ditugu».

Uda ostean, berriz, Intxurre eguna etorriko da. Irailaren erdialderako aurreikusitako dute, eta bazkaria eta erromeria izango direla azaldu du elkarteko kideak. Urte bukaerarako, eta urtea borobiltze aldera, bertsoekin eta antzerkiarekin lotutako ekitaldiak ari dira prestatzen.

Irazustabarrenak esan duenez, 2022a urte berezia da Alegian, ez soilik Intxurren 50. urteurrena delako, baita Iñaxio Begiristain idazlea eta ekintzailea jaio zeneko 100. urteurrena os-



Urteurreneko irudia duen kartela zintzilikatu eta topa egin zuten elkartean, urteko lehen egunean. ATARIA

patzen delako ere; «Herriko kultur etxeak bere izena darama, Intxurreko ohorezko bazkide izan zen, eta baita antzerki taldeko zuzendari ere, horregatik antzerkiak ere lekua izan behar du gure urtemuga berezian».

Elkarteak dituen 50 urteetan ekarpen handia egin du herrian Intxurrek, eta egiten jarraitzen du egun ere; «Gauza asko egin dira, eta oraindik ere egiten dira, batez ere pilotan eta futbolekin, eta hori nolabait erakutsi nahi dugu urte berezi honetan».

50. URTEURRENEKO EKITALDIK

Urtarrilak 18. Intxurre elkartearen historia jasotzen duen dokumentala, besteak beste elkarteko bazkide izan direnek kontatua. Herriko zineman izango da, 18:30ean. Ondoren, urteurreneko ekitaldien berri emanango dute, eta gerturatzen diren bazkideekin argazkia egingo dute.

Urtarrilak 23. Intxurre mendira irteera, 08:00etan abiatuta. Languerrera bisita, eta ondoren, elkartean hamaiketako.

Maiatzak 29. Languerre eguna. Ingurugiroa, basoak eta mendiekin lotutako hitzaldi eta jarduerak egingo dituzte.

Iraila erdialdean. Intxurre eguna. Bazkaria eta erromeria egingo dituzte, ospakizun giroan.

Urte bukaeran. Bertsoekin lotuta bertso eguna, eta antzerkiarekin lotutako ekitaldiak ere aurreikusten dituzte.

Larunbatera bitarte, 'Sükrü Karakus, mistika eta tekno-popa' erakusketa bisitatu daiteke Aranburu jauregian; turkiar artistak, «aitortza modura», azken bi urteetan sortutako ia 100 margolan biltzen ditu

Espirituala bezain sintetikoa

Josu Artutxa Dorronsoro

Turkiatik Tolosara heldu eta eskualdeko zenbait herritarrei pinturarekiko zuten beldurra kentzen nahiz artea bera maitatzen lagundu izan die zenbait urtez Sükrü Karakus margolariak. Pasa den abenduaren 17an, erakusketa berri bat inauguratu zuen Tolosako Aranburu jauregian: *Sükrü Karakus, mistika eta tekno-popa*. Larunbatera bitarte bisitatu daiteke, egunero, 17:30etik 20:30era.

Azken bi urteetan egindako ia 100 lanekin osatu du erakusketa. «Bizitzeko nire modua da margolan berriak sortzen aritzea eta gelditu gabe aritu ohi naiz lanean. Pandemia, ordea, ez da inspirazio-iturri izan niretzat, nire lanaren aitortza baizik. Begirada sensibilizatza gongratatu nahi ditut bisitariak. Ohikoak ez diren obrak ikusi daitezke, eta beraz, zerbait berria bilatu nahi izan dut», nabarmendu du.

Jainkoarekin bat egitea edota haren intuiziozko kontenplazioa, giza adimena eta harremanak aztertzea helburu duen teologiaren atala da mistika; espirituko bizia ere esaten zaio. Grezieratik eratorritako hitza da, eta «ezkutatu egiten dut» esan nahi du. Karakusek, ordea, ez du ezer margotu gabe utzi nahi izan, eta bere margolan akrilikoetan, mundua antolatzeke eta ulertzeko hainbat sistema uztartu ditu. «Osatzen gaituzten informazio- eta sentiberatasun-egituren desberdintasun konplexua akoplatzen saiatu da», gaineratu du Anna Adell kritikari kataluniarrek.

Pop sintetikoa edo tekno-popa pop musikaren olatu berriaren azpigenere bat da, 1960ko hamarkadan sortua. Alemanian agertu zen lehenik, eta Erresuma Batura eta Japoniara hedatu zen gero. Bada, neo-pop estetika erabiliz, Karakusek norbere kontzientzia-ereduek osatzen duten emari teknologiko-urbanoan murgiltzen du bisitaria. «Zentzumen-inputen ugaritasun hori ordenatzen saiatzen da, baina konplexutasuna alde batera utzi gabe. Geometria eta organismoa,



Sükrü Karakus artista turkiarra, Aranburu Jauregian ikusgai jarri duen erakusketako margolan batzuen aurrean. J. ARTUTXA


kode kosmetikoak eta kosmikoak, teknologia eta mistika bateratzen ditu», esan du Adellek.

BI KONTINENTE, BIDAIA BAT

Pintura industrialari eta paper margotuaren estetikari egindako zenbait keinu islatzen dituzte Karakusen lanek. «Horiek guztiek, lehen irakurketa-maila bat eskaintzen dute, eta horren ondoren, errealtatearen hainbat parametrotan sartzen dira: fisikoa eta birtuala, mentala eta sentisibla», azaldu du kritikari kataluniarrek.

Halaber, itxurazko dekoratu hori arabiar apaindura-arteari buruzko aipamenez bete, eta pertsonala den oro unibertsalarekin elkartzen du erakusketan. «Batetik, erritmo geometrikoak ordena espiritualeko transkripzio bihurtu eta hizkuntza elektronikoarekin uztartzen ditu. Bestetik, forma organikoak erabiltzen ditu, zirkuitu integratuen moduko forma tubularrak dituzten tonu metalizatuak, mikroorganismoak (zelulak) sare neuronalekin edo formazio galaktikoekin (planetekin) bateratuz», azaldu du Adellek. Erakusketa bera «bidaia moduko bat» dela nabarmendu du Karakusek, «besteak beste, zelulatik kosmosera, mikrotik makrora».

Erdi asiarra eta erdi europarra sentitzen da margolaria, eta bere



100 margolanen artean, erretratuak ikusi daitezke. J. ARTUTXA



Forma organikoak erabili ditu gehienbat, margolan koloretsuetan. J. ARTUTXA

lanetan bi kulturen eragina azaltzen saiatzen dela aitortu du, bera ere «uztarketa horren parte» delako. Gainera, bere jatorri kultural eta geografikoak, sufien filosofia eta Mediterraneo itsa-

Bere jatorri kultural eta geografikoak, sufien filosofia eta Mediterraneo itsasoa ekartzen dizkio gogora

Nagusiki, erakusketa ikustera joaten diren bisitariak «ofizioa errespetatzea» nahi du artista turkiarrak

soa ekartzen dizkio gogora Karakusi. «Bata zein bestea, pertzepzio-maila desberdinak kateatzaren bitartez sentitzen ditut. Interes handia dut sufien filosofia-erakusketari, eta sarri saiatzen naiz garai bateko nahiz gaur egungo margolariekin uztartzen. Gorpuzta eta arima garbitzeko meditazio mota bat da. Horregatik, nire margolan askoren oinarrian, gorputz bat azaltzen da, etengabe bueltaka ari dena».

«AURREIRITZIAK HAUSTEKO»

Nagusiki, erakusketa ikustera joaten diren bisitariak «ofizioa errespetatzea» nahi du Tolosan bizi den artista turkiarrak. «Askoren ustez, artista batek noizbehinka pintzel bat eskuetan hartu, bizpahiru keinu egin, eta obra bat sortzen du; baina, ez da horrela. Aurreiritzi hori haustea da nire helburua. Beste edozein ofizio bezain garrantzitsua da gurea. Orduak eta orduak eskaintzen dizkiot margotzeari eta margolan berriak sortzeari».

Pintura ikastaro bat egiten ari den lagun batek, erakusketa bisitatu ondoren, ikusitakoa «bikain» deskribatu zuela aitortu du. «Erakusketara sartu bezain laster, apurtzailea zen zerbaitekin topo egin zuela esan zidan».

Ondorioz, bisitariak «euren buruari galderak egitea» nahi du Karakusek. «Erakusketatik irten, eta egun horretan nahiz hurrengoetan pinturari buruz hausnartu dezatela, eta horrez gain, erakusketa berriro bisitatu dezatela, bestelako begirada batekin ikusteko».



Ramon Agirre, Nerea Gorriti eta Inazio Tolosa, 'Gu primer' antzezlaneko une batean. ATARIA

«Pentsatu izan da amerikarrak izan zirela lehenak ilargira iristen»

RAMON AGIRRE AKTOREA

Xentimorik gabe konpainiak 'Gu primer!' antzezlana eskainiko du urtarrilaren 21ean, Tolosako Leidor aretoan, 20:30ean; musika eta umorea lagun ariko dira oholza gainean Ramon Agirre, Inazio Tolosa eta Nerea Gorriti

Irati Saizar Artola

1969an iritsi zen gizaki bat lehen aldiz ilargira, baina istorioaren benetako datu bat argitara atera du Xentimorik gabe konpainiak, *Gu primer!* antzezlanarekin: bi euskaldun izan ziren lehenak ilargira iristen.

Elkarrekin ondutako laugarren antzezlana dute Ramon Agirrek eta Inazio Tolosak *Gu primer!*. Xentimorik gabe izan zen lehena, eta haren atzetik heldu ziren *Kokakola eta barea* eta *Putinen guardasola*. Eta azken

lanera Nerea Gorriti batu zaie; Agirreren esanetan, «sekulako fitxaketa» egin dute.

'Primer' gaztetxotan esaten den hitza da, zerbaitetan lehen izan nahi dela adierazteko. Grazia egin zigun guri ere. Gure buruari baimendu diogun erdarakada bakarra izan da, eta polita iruditu zitzaigun antzezlanaren izenerako.

Zertan izan nahi duzue 'primer'?

Izan gara dagoeneko *primer* gauza batean, eta horixe da antzezlanean kontatzen duguna. Ilargira

iristen lehenak ez ziren estatu-batuarrak izan, ezta errusiarrak ere, bi euskaldun izan ginen: Inazio Tolosa eta biok. Gertatzen dena da hori ez dela jakin orain arte. NASAk paper batzuk desklasifikatu ditu eta bada garaia jendeak jakiteko nortzuk izan ziren ilargira iristen lehenak.

Orain arte egia hori kontatu ez izanak, ordea, badu azalpena.

Frogarik ez genuen ekarri, argazki makina ere ahaztu egin zitzaigun... Egia esan, zorte txarra izan genuen, izan ere gure espaziontzia izorratu egin zen. Amerikarrak ekarri gintuzten. Armstrong izeneko tipo batekin egin genuen topo han, oso tipo jatorra, eta hark ekarri gintuen. Geroztik mundu guztiak pentsatu izan du amerikarrak izan zirela lehenak, baina tratuaaren parte zen. Lurrea ekartzearen truke esan zuten beraiek izan zirela lehenak. Orain arte ezin izan dugu egia kontatu eta orain pozik gaude.

Eta jendeak nola hartu du berri hori?

Pozik eta harro. Kontatzen dugun abentura oso polita da, pasadizo barregarriak ditu, garai hartan serioak zirenak, baina berrogeita hamar urte pasa eta gero umorez kontatzen ditugu.

Musikak ere badu presentzia zuen antzezlanean. Zuzenean jotzen dituzue instrumentuak.

Inazio Tolosa eta bion laugarren ikuskizuna da elkarrekin, eta gure estiloan jarraitu dugu. Kontakizunak abestiz ziprztintzen ditugu. Normalean abesti ezagunak izaten dira, letrak aldatuta; horrelako lizentziak hartzen ditugu, plagiatzen maisuak gara. Laugarren antzezlan honetarako Nerea Gorriti batu zaigu, eta musikalki asko hobetu dugu. Nik gitarra jo eta abestu egiten dut, Inazio Tolosa haize instrumentuetan maisua da eta orain hiru garren bat erantsi diogu, Nerea Gorriti, eta berak teklatura jotzen du. Bi izatetik hiru izatera salto handia dago. Pozik gaude, sekulako fitxaketa egin dugu.

Tandema hautsi beharrean, hobetzeko balio izan du Gorritiren etorrerak.

Hori da. Gaztetasuna erantsi dio, musika aldetik dohain handiak ditu eta oso gustura gaude.

Eta gainera, pertsonaia bat baino gehiago antzezten ditu oholztan.

Inaziok eta biok gure pertsonaia klasikoekin jarraitzen dugu hemen ere, Ray eta Nik izeneko bi tipo xelebrerekin. Eta Nerea Gorritik astronauta batena egiten du esaterako, eta baita Faustina Elhuyarrena ere. Izan ere, gure espaziontzia Elhuyar anaiak diseinatu zuten, baina konturatu ginen ez zirela anaiak, anai-arrebak zirela eta Faustina zela guztia maneiatzen zuena.

Zuk eta Inaziok, Ray eta Nik izaten jarraitzen duzue. Nola-koak dira bi pertsonaia?

Bi titiritero dira, munduan buelta asko eman dituztenak beraien instrumentuak hartuta. Sudurrik gabeko pailazoak dira, bi pertsonaia maitagarri eta edozein gauzarekin musika egiteko gai diren bi tipo.

Eta umorerik ez dute galtzen.

Gure gakoa umorea da. Ustez gauza serioak kontatzen ditugu, baina beti umorez.

Ilargirainoko bidaia antzeztan duzue, baina oholztatik ez zarete mugitzen.

Elementu gutxiarekin egiten dugu, horrela gustatzen zaigu guri. Koloretako aulki batzuk erabiltzen ditugu esaterako, eta kapsula moduko bat ere badugu, ilargiko pasadizoak antzezteko. Argiarekin ere besteetan baino gehiago jokatu dugu, ilargiaren argitasun berezia sortzeko. Elementu gutxiarekin ingurune ezberdinak sortzen ditugu, ikuslearen irudimenak asko jotzen du eta horrela lortzen dugu leku desberdinetatik pasatzea.

Eskualdera zatozte, baina bestela ere baduzue harremana inguruarekin. Alkizan egiten dituzue tarteka entseguak.

Txoko bat badugu Alkizan eta entseguak egin izan ditugu han. Aurreko ikuskizunak ere egin izan ditugu bertan. Badugu herri horrekin lotura sentimental bat.

Kasu honetan, Tolosan izango zarete, hurrengo astean.

Ez da lehendabiziko aldia Leidorrrera joango garena. Xentimorik gabe konpainiarekin bai, baina beste ikuskizun batzuekin ere iritsi naiz eta beti sentitu izan naiz gustura. Oso plaza maitea da Tolosa. Ikusleak animatu nahi nituzke, esanez ordubete polita pasatuko dutela, barre egingo dutela eta gustura aterako direla.

Mutilen sokatira taldeak ez du nahi bezalako hasiera izan

Ibarrako sokatira taldekoak hirugarren izan dira Belabieta kiroldegian jokaturako 680 kiloko finalean; 640 kiloko lehen jardunaldian, bigarren egin dute



Ibarra sokatira taldea, larunbatean, Belabieta kiroldegian jokaturako finalaren une batean. IÑIGO TERRADILLOS

Imanol Garcia Landa Ibarra

Sokatiran hasi dira denboraldi honetako zortzikoen mailako txapelketak, eta txapela jokoan izan den lehenengoan, mutilen 680 kiloko mailan, Ibarrako taldeak ez du nahi bezalako hasiera izan. Etxean jokatu zuten txapelketa, Belabieta kiroldegian, eta parte hartu zuten lau taldeen artean hirugarren postua lortu zuten. Lander Otermin Ibarrako tiralariak azaldu duenez, ez ziren pozik geratu eguna nola joan zen ikusita. «Azkenaldian arazoak izaten ari gara txapelketak hasten direnean. Dirudienek, gerora bizkortzen gara, eta ez gara aurreneko jardunaldi onak egiten zaleak». Biltzeko eta beraz entrenatzeko dauden zailtasunak ere aipatu ditu Otermin: «Etxeko lanak ondo egin gabe joan ginenaren sentsazioarekin geratu ginen. Postuak elkarrekin aldatzen-eta aritu ginen, bakoitzak bere lekua topatu ezinik».

Maila horretan jardunaldi bakarra jokatu zuten, eta, beraz, horixe izan zen finala. Berez sei taldek eman zuten izena, baina bi ez ziren azaldu Ibarrara, COVID-19ko testetako positiboak zirela eta. Txapelduna Beti Gazte

izan zen, Zuraidek bigarren egin zuten eta Ñapurak izan ziren laugarrenak. Zuraidekoekin egon ziren lehia estuan, baina azkenean lapurtarren aldera joan zen bigarren postua.

Pisu handiena da 680 kilokoa, eta arazoak izan ohi dituzte Ibarra taldekoek pisua ondo betetzeko, baina oraingoan ez zutela horrelako aitzakiarik esan du Otermin: «Pisua ondo beteta joan ginen, baina ez ginen oso gustura gelditu. Lehen jardunaldia zen, eta zuzenean finala, eta ez genekien ere beste taldeak nola egongo ziren».

IGANDEKOAN, GUSTURAGO

Bi saio izan dituzte asteburuan, eta bigarrenengoan gusturago geratu zirela azaldu du Otermin: «640 kiloko mailan lehen jardunaldia izan zen jokoan igandean Abadiñon, eta hor bigarren egin zuten. Beste jardunaldi bat falta da maila horretan eta hirugarrenengoan finala izango dute jokoan. «Berez saio horretarako beldur handiagoa nuen, pisuz baxu joan ginelako, 625 kilo pisatuz, baina finalerako txartela lortzeko lehen pausoa zenez, lasaigo joan ginen eta oso gustura geratu ginen emaitzarekin».

Sei talde sartzen dira finalera, eta berez zortzi parte hartzaile izan behar bazuten ere, azkenean sei izan ziren lehian aritu zirenak. Beraz, esan daiteke ibartarrek dagoeneko lortu dutela finalerako txartela. Asteburuan jokatu da bigarrenengo jardunaldi hori, Bilboko Casillan. Jardunaldi horretan, hain justu, hasiko dira emakumezkoen zortziko taldeen txapelketak, eta lehenengo 540 kilokoa izango da. Maila horretan bi jardunaldi izango dituzte finalerako sailkapena lortzeko.

600 kiloko mailan ere parte hartzeko asmoa du gizonezkoen taldeak, eta hor ere bi jardunaldi jokatu dira finalera sailkatzeko. Hamar talde inguru izena emanda daude maila horretarako. Azken txapelketa mistoa izango da, taldea lau emakumezko eta lau gizonezko osatuta jokatzeko den modalitatea, eta bertan parte hartzeko asmoa ere badu Ibarra. Hori izango litzaiteke aurtengo azken txapelketa, eta martxoaren hasieran jokatu da. Berez aurten Munduko Txapelketa jokatzeko zen, baina bertan behera geratu da, eta dirudienek hurrengo urtean egingo da.

Caballerok Tolosa CF-ko marka egin du martxan

Hodei Caballerok 45.20ko marka egin du hamar kilometroko martxa proban; Manex Civicok hirugarren egin du bere mailan Juan Mugerza krosean

Erredakzioa Tolosa

Asteburuan hainbat emaitza nabarmen lortu dituzte Tolosa CF-ko atletak. Horietako bat Hodei Caballero ordiziarra izan da, martxako 10 kilometro proban Tolosa CF-ko errekorra eginez, 45.20ko markarekin. Pasa den larunbatean lortu zuen Utreran (Espainia), Andaluziako errepedeko martxa txapelketan. Lehia-keta bikaina eginez, Caballerok bere marka pertsonala minututik gora hobetu zuen, klubeko marka berria ezarritik. Gainera, bere aita Jon Anderrek duen Gipuzkoako errekorretik bederatzi segundo eskasera gelditu zen Jacinto Garzonek zuzenduriko atleta. Tolosa CF-tik ziur daude bide hori jarraituz gero 45 minutuko langa laster puskatuko duela atleta gazteak.

Beste marka garrantzitsu bat Ander Garin alegiarrak lortu du. Pasa den igandean egin zen Valentziako 10 kilometroko Ibercassa saria eta bertan atleta alegiarrak 31.02ko marka hobetzerak joan zen, eta baita lortu ere. Garinek bere marka pertsonal berria 30.30ko denbora bikainean utzi du. 30 minutuko langa hortxe du atleta alegiarrak. Klubetik ere espero dute langa hori gaintzeko gai izango dela.

JUAN MUGERZA KROSA

Emaitza oso txukunak izan zituzten igandean Tolosa CF-ko atletak Elgoibarren egiten den Juan Mugerza krosean, mundu mailako krosik onenetarikoa. Nabarmenezkoa da Manex Civico tolosarrak podiuma zapaltzea lortu zuela 18 urtez azpiko mailan hirugarren sailkatuz.

Klubeko beste parte hartzaileen emaitzak hauek izan ziren: 16 urtez azpiko mailan, Idoia Arrospe 20., Markel Iraeta 21., eta Ai-



Hodei Caballero, Utreran asteburuan egindako proban. ATARIA

tor Aristi 41.; 18 urtez azpiko mailan, Unax Armendariz 33., Beñat Fernandez 35., Aimar Artola 38., Eñaut Sistiaga 63., Ane Martin 16., eta Naroa Rojo 23.; eta, azkenik, absolutu mailan, Aitor Regillaga 47. eta Andoni Saldias 59. izan ziren.

Bestalde, pasa den larunbatean ospatu zen Donostiako Antonio Elorza belodromoan Euskadiko Pista Estaliko Master Txapelketa. Bertara, dozena erdi bat atleta urdin joan ziren lehiatzera eta emaitza onak lortu zituzten gehienek ere. Domina ugari lortu zituzten master mailako adin tarte ezberdinetan. Hauek izan ziren klubeko atletak lortutako emaitzak: 60 metroetan, Angel Urangak 8,63; Juanmi Calahorrak 8,72; Juan Carlos Etxebestek 8,90; Iker Ariznabarreta 9,08; eta Armando Rocak 12,45; 200 metroetan, Juan Carlos Etxebestek 29,41; 400 metroetan, Juan Carlos Etxebestek 1,09; eta 1.500 metroetan Raul Viejak 4.30.



ASTEAZKENA, 2022KO URTARRILAK 12
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeca Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetalea@ataria.eus
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arretra zerbitzua: 943 30 43 46



Ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Balarraín, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larrauri, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



Bertso saiorako azken sarrerak, gaur salgai

Azken 50 sarrera geratzen dira urtarrilaren 22ko bertso jaialdiko edukiera betetzeko; 10:00etatik 12:00etara eskuratu ahalko dira



Pasa den urteko bertso jaialdiko une bat. IMANOL GARCIA LANDA

Erredakzioa

Urte hasieran ohikoa den moduan, TOLOSALDEKO ATARIA-k bertso jaialdia antolatu du aurten ere. Tolosako Leidor aretoan izango da hurrengo larunbatean, hilaren 22an, 18:00etan hasita, eta Oihana Iguaran, Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Andoni Egaña, Nerea Ibarzabal eta Iker Zubeldia ariko dira bertsoan. Amaia Agirre izango da aurten ere gai-jartzaile lanak egingo dituen.

Urtero erantzun oso ona izan ohi duen jaialdia da ATARIAK antolatzen duena, eta aurtengoan ere jende ugari gerturatu da sarrerak erostera horretarako jarritako egunetan. Bada, Gabonen aurretik saldutakoak eta azken osasun neurriak kontuan hartuta, azken 50 sarrera geratzen dira onartutako gehieneko edukiera betetzeko.

Sarrera horiek gaur jarriko dira salgai, eta Atariaren egoitzan eskuratu ahalko dira, 10:00etatik 12:00etara. Atarikideek 15 euro

ordaindu beharko dute sarrera bakoitzeko, eta gehienez bi sarrera erosi ahalko dituzte prezio horretan. Bi sarrera baino gehiago erosi nahi izanez gero, sarrera bakoitzarengatik 17 euro ordaindu beharko dute. Atarikide ez direnek berriz, 17 euro ordaindu beharko dute sarrera bakoitzarengatik.

Geratzen diren sarrera horiek agortzean, 500 laguneko gehieneko edukiera beteko da, eta ezingo da sarrera gehiagorik saldu.

ASTEAZKENA 12

AGENDA

Deialdiak

Amasa-Villabona. Argindarraren faktura ulertzeko tailerra. Udalak antolatuta, Goiener Kooperatibarekin elkarlanean, 15:00etan, Subijana etxean.

Erakusketak

Alkiza. Hitzak zaindaria erakusketa ibiltaria Fagus Alkiza interpretazio zentroan.

Tolosa. Binilozko diskoen eta txo-txongiloen arteko harremana islatzen duen erakusketa Topic-en.

Tolosa. Paperezko antzerkia Inglaterra jaio zen. Aitzindarietako bat Alain Lecucq da, eta bere ibilbidean sorturiko lanak daude Topic-en.

Tolosa. Sükri Karakus, mistika eta tekno-popa erakusketa, Aranburun. Neo-pop estetikaekin, Karakusek gure kontzientzia-ereduek osatzen duten emari tekno-urbanon murgiltzen gaitu.

ATARIA IRRATIA

09:00. Pasahitza. Asier Imazek gidatutako magazina: Iker Ibarluzearen eguraldi iragarpina, prentsari begirada, eskualdeko berriak, kolaboratzaileen tarteak...

15:00. Desafioa. Herri kirolak, Jose Angel Sarasolarekin.

16:00. Zebrabidea. Arrosa sareko irrati artean eginiko magazina.

20:00. (H)ari Naizela. Bertsolaritzari buruzko saioa.

21:30. Lokatzetan. Umorezkoa saioa.

28 KANALA

08:00. 1, 2, 3 hemen da Miru!

11:00. Musika zuzenean

11:30. Gaurkoan Tolosaldeko

17:30. Gaurkoan Tolosaldeko

22:00. Lehen lerroan

FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunekoa. E. Bengoe-txea. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.

TOLOSA. Gauekoa. L. Morant. Zabalarrera lorategiak, 1. 943 67 38 49.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA

Gaur. Giro eguzkitsua, baina hotza. Goizeko behe-lainoa jaso ostean, egun guztian zerua ia erabat urdin agertuko da eta giro ederraz gozatu ahalko da. Hai-zeak ipar-ekialdetik joko du eta tenperatura maximoak jaitsi egingo dira, nekez gaindituko dituztelarik 8-9 graduak. Gauean asko hoztuko du.

Bihar. Giro hotzarekin jarraituko dugu. Goiza oso hotza izango da, non txoko gehienetan izotza agertuko den. Behe-lainoa ere agertuko da, baina jaso ostean zeru urdina nagusituko da. Haizeak hego-ekialdetik suabe joko du eta tenperatura zertxobait igoko da 9-10 graduan joz goia.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

ATARIA BERTSO JAIALDIA 2022

Oihana Iguaran
Maialen Lujanbio
Amets Arzallus
Andoni Egaña
Nerea Ibarzabal
Iker Zubeldia

Urtarrilak 22, larunbata,
18:00etan,
Tolosako Leidor antzokian

Gai jartzailea:
Amaia Agirre

